



ERABAKIA, 2025eko IRAILAREN 22koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ETA KONPROMISO SOZIALERAKO ERREKTOREORDEARENA, EZOHIKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGITEKO PALESTINAKO UNIBERTSITATEETAKO DOKTOREGO ONDOKO IKERTZAILEENTZAT

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak konpromiso sendoa du giza eskubideekin, eta indarkeria mota guztien kontra dago, erakundearen Estatutuek eta Kode Etikoak adierazten duten bezala.

Deialdi hau bat dator UPV/EHUren konpromiso horrekin eta horren harira hartutako neurriekin ([Palestina laguntzeko manifestua Gazako hondamendi humanitarioaren aurrean](#) agirian jasotako neurriak), helburua izanik babesa eta laguntza eskaintzea Palestinako herritarrei eta, bereziki, unibertsitateei.

Hori horrela, areagotu egin nahi dugu Palestinako sistema zientifikoarekin eta goi-
hezkuntzako sistemarekin dugun lankidetzaz, [Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarrak \(CRUE\)](#) 2024ko maiatzaren 9an Gazan bizi den egoera kritikoaren harira adostutako neurrietan jasota dagoen bezala.

LEHENENGOA. - Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da 2025-2026 ikasturtean UPV/EHUUn ikertu nahi duten doktorego ondoko ikertzaile palestinarren egonaldiak diruz laguntzeko ezohiko deialdia arautzea.

BIGARRENA. - Eskatzaileak eta baldintzak

Laguntza eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte ikertzaileek:

- Doktore titulua izatea.
- Diruz lagundutako egonaldian bizilekua EAEn edukitzea (gutxienez 6 hilabeteko eta gehienez 12 hilabeteko egonaldia).
- Beste dirulaguntzarik edo bekarik ez jasotzea deialdi honetan aipatutako gastuetarako.

HIRUGARRENA. - Eskaerak eta dokumentazioa aurkeztea

Interesdunek bete egin behar dute deialdi honi erantsitako eredua (1 ERANSKINA). Gainera, agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Atzeritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia; bestela, [nortasun agiriarena](#) edo pasaportearena.
2. [Curriculum](#).



3. Lankidetzan aritzeko proposatzen duten UPV/EHUren ikertaldearen memoria laburra. Aplikazio zentroak proiektuaren arloan duen ospea eta ikerketa proiektuaren eta ikertaldearen zuzendariaren historial zientifikoa.
4. Zinpeko aitorpena, deialdi honetan aurreikusitako alojamendu eta mantenu gastuetarako bestelako bekarik edo laguntza ekonomikorik ez jasotzearena.
5. Gastuen aurreikuspena: EAerako bidaia eta bisa, mantenua eta alojamendua, eta UPV/EHUn egingo den egonaldiarekin zuzenean lotutako beste gastu batzuk.

Kontuan harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 e) artikulua eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia (UPV/EHUrekiko harremanak modu elektronikoa izateko interesa duten pertsonen eta bertan zerbitzuak ematen dituzten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoa buruzko instrukzioa onartzen duena), eskaera aurkeztu beharko da UPV/EHUren erregistro elektronikoa, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, hartzailea izanik UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa. Horretarako erabiliko da UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da ere sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa edo, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkeztu diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak UPV/EHUn funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

UPV/EHUK eskubidea izango du proposamenen edukia argitu edo zehazteko komenigarria iruditzen zaion informazioa eskatzeko.

LAUGARRENA. - Eskaerak aurkezteko epea

Bi adjudikazio egingo dira, programaren kreditua amaitu arte (12.000,00 euro/urte).

- Lehenengo adjudikazioa. Lehen adjudikaziorako eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da, kontatzen hasita deialdia argitaratzen den egunetik.
- Bigarren adjudikazioa. Bigarren adjudikazioan, epea zabalik egongo da 2025eko abenduaren 2ra arte.

Lehenengo adjudikazioan programaren kreditua amaitzen bada, ez da bigarren adjudikazioa egingo.



BOSGARRENA. - Balorazio irizpideak

Baldintzak beteko dituzten eskaera guztiak onartuko dira, kreditua amaitu arte. Dena dela, nahikoa krediturik ez badago adjudikazioaren batean jasotako eskaera guztiei erantzuteko, Hautapen, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak kontuan hartuko ditu:

- Eskatzailearen curriculum. Gehienez 40 puntu.
- Ikertzailea egonaldian lankidetzan arituko den UPV/EHUko ikertaldearen memoria laburra. Gehienez 30 puntu.
- UPV/EHUtik lizentziatura, masterra edo doktoregoa lortu izana. Gehienez 20 puntu.
- Elkarrikeria pertsonala (hala badagokio). Gehienez 10 puntu.

SEIGARRENA. - Laguntzen kopurua eta finantzaketa

Deialdi honen aurrekontua 3945 E56 aurrekontu partidari dagokio, eta 12.000 euro dira.

Laguntzaren bidez ordainduko dira EAerako bidaia eta bisa, mantenua eta alojamendua, eta UPV/EHU n egingo den egonaldiarekin zuzenean lotutako beste gastu batzuk.

Alojamenduari dagokionez, ahal dela, UPV/EHUren ikastetxe nagusi edo unibertsitate egoitza batean hartuko da, eta aukera izango da ere pisu/apartamentu/etxebizitza bat hartzeko, alokairu kontratu bidez.

Alojamendu eta mantenu gastuetarako laguntza 27,40 eurokoa izango da gehienez egonaldi egun bakoitzeko. Egonaldia izango da gutxienez 6 hilabetekoa eta gehienez 12 hilabetekoa.

ZAZPIGARRENA. - Laguntzak adjudikatzea

Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, akatsen bat zuzentzeko edo eskaera hobetzeko eskatzen zaien eskatzaileek 10 egun izango dituzte gehienez hori egiteko, eta ohartaraziko zaie ezen, hala egin ezean, eskaerari uko egin diotela ulertuko dela, aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoa.

Eskaeraren akatsak zuzentzeko 10 eguneko epea igarota, bildu egingo da Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako errektoreordeak izendatutako batzordea.

Batzorde horrek akta batean jasoko ditu eskaeren zerrenda, balorazio ordenaren arabera, eta atzera botatako eskaerena, eta laguntzak nola banatu proposatuko dio Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako errektoreordeari.

Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako errektoreordeak deialdiaren emaitzaren berri emango die eskatzaileei, eta emandako kopuruak zehaztuko ditu. Erabaki horren aurka berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, kontatzen hasita jakinarazpen pertsonala egin eta hurrengo egunetik, erabakia eman duen organo beraren aurrean, aintzat harturik Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoa.

Adjudikaziodunak dirulaguntza onartzeak berekin dakar deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzea.



ZORTZIGARRENA. - Laguntzak kentzea

Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordetzak, UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzarako Bulegoak proposamen arrazoitua egin ondoren, emandako laguntza baliogabetu ahal izango du, osorik edo zati bat, baldin eta (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa):

- baldintzak betetzen ez badira.
- egonaldiaren edukia modu nabarmenean aldatzen bada.
- aurretik aldaketa horien (aldi baterakoak edo ez) berri ematen ez bada.

Erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtoa jarri ahal izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua), edo, bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi errekurtoa, administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Leioa, 2025eko irailaren 22a.

Asier Blas Mendoza

Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordea
Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social